

MANCOMUNIDAD DE BORTZIRIAK-CINCO VILLAS PARA LA GESTIÓN DE
LOS RESIDUOS SÓLIDOS URBANOS

BORTZIRIETAKO HIRI-HODAKIN SOLIDOAK KUDEATZEKO

MANKOMUNITATEA

ORDENANZA REGULADORA DE LA GESTIÓN DE LOS RESIDUOS URBANOS HIRI HONDAKINEN KUDEAKETA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA

TITULO I

I. TITULUA

Condiciones generales

Baldintza orokorrak

Artículo 1. La presente Ordenanza tiene por objeto regular las relaciones entre la Mancomunidad de Bortziriak-Cinco Villas, entidad que asume el servicio de gestión de residuos urbanos y los usuarios del mismo, en el ámbito territorial citado, determinando los derechos, deberes y obligaciones de cada una de las partes.

1. artikulua. Bortzirietao lurraldean hiri hondakinak bildu eta tratatzeko zerbitzuak kudeatzen dituen Bortzirietao Mankomunitatearen eta erabiltzaileen arteko harremanak arautzea da ordenantza honen xedea, eta bi alderdietako bakoitzak dituen eskubide, betebeharrak eta egitekoak zehaztea.

Artículo 2. En materia tributaria y de recaudación los servicios se regirán por lo establecido en la normativa de Navarra en materia de Haciendas Locales y, en especial, por la Ordenanza Fiscal vigente en cada momento.

2. artikulua. Zerbitzuen tributu eta dirubilketa kontuetarako, toki ogasunei buruz Nafarroan indarra duen araudia eta, batez ere, une bakoitzean indarra duen ordenantza fiskalari egin beharko zaie kasu.

Artículo 3. Las normas de la presente Ordenanza se aplicarán por analogía a los supuestos que no están expresamente regulados y que, por su naturaleza, están comprendidos en el ámbito de la misma.

3. artikulua. Ordenantza honetako arauak analogiaz aplikatuko dira espreski araututa ez dauden kasuetan, izaeragatik ordenantzaren esparruan izanik.

Artículo 4. La Mancomunidad establecerá la interpretación que estime conveniente en las dudas que pudieran presentarse en la aplicación de la presente Ordenanza.

4. artikulua. Mankomunitateak ordenantza aplikatzerakoan sor daitezkeen zalantzen gainean egoki juzgatzen duen interpretazioa ezarriko du.

Artículo 5. La regulación de la presente Ordenanza se atiene a los principios de la Ley 10/1998, de 21 de abril, de Residuos, y demás disposiciones aplicables sobre gestión de los residuos.

5. artikulua. Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen eta aplikatzeko diren bertze xedapeneen oinarriari jarraikiz arautu da ordenantza hau.

Artículo 6. De acuerdo con la Ley 10/1998 los residuos urbanos pasan a ser propiedad

6. artikulua. 10/1998 Legearen arabera, hiri hondakinak Mankomunitatearenak

de la Mancomunidad, una vez se realice la entrega de los mismos. dira, horiek utzi eta gero.

TITULO II

II. TITULUA

De la recogida de residuos urbanos

Hiri hondakinen bilketa

Artículo 7. El presente título regulará las condiciones en las cuales la Mancomunidad de Bortziriak-Cinco Villas prestará y el usuario utilizará los servicios destinados a la recogida de los residuos urbanos.

7. artikulua. Titulu honek arautuko duena da Bortzirietako Mankomunitateak nola emanen dituen hiri hondakinak biltzeko zerbitzuak eta erabiltzaileak nola baliatuko dituen.

CAPITULO I

I. KAPITULUA

Condiciones generales y categorías de residuos

Baldintza orokorrak eta hondakinen kategoriak.

Artículo 8. Tienen la categoría de usuarios todas las personas físicas y jurídicas que resulten beneficiadas o afectadas por dichos servicios.

8. artikulua. Erabiltzaileak dira zerbitzu hauek aprobetxatzen dituztenak edo zerbitzu hauek ukitutako pertsona fisiko eta juridiko guztiak.

Artículo 9. A los efectos de la presente Ordenanza, se establecen las siguientes categorías de residuos que, a su vez, definen las condiciones de prestación de los servicios, unos de carácter obligatorio y otros de carácter voluntario:

9. artikulua. Ordenantza hau aplikatzeko, hondakin kategoria batzuk finkatzen dira, eta horiexek zehazten dute, hain zuzen, zein baldintzatan eskainiko diren zerbitzuak, bai derrigorrezkoak bai borondatezkoak.

A) El servicio de recogida de residuos domiciliarios afectará a los siguientes residuos urbanos:

A) Etxeko hondakinen bilketa zerbitzua honako hiri hondakin hauei dagokie:

1. Los desechos de la alimentación y del consumo doméstico producidos por los ciudadanos en sus viviendas.

1. Etxebizitzetan herritarrek elikaduraren eta kontsumoaren ondorioz sortzen dituzten hondarrak.

2. Los residuos procedentes del barrido de las aceras y calles.

2. Espaloiak eta kaleak eskobatzean sortzen diren hondakinak.

3. Pilas.

3. Pilak

4. Residuos asimilables a urbanos: Se entenderán como asimilables a los urbanos los siguientes residuos, cuando supongan una entrega diaria habitualmente inferior a 50 litros:

4. Hiri hondakinen parekoak: horrelakotzat joko dira ondotik aipatzen diren hauek, baldin eta egunero uzten dena 50 litrotik beheitikoa bada.

- | | |
|--|---|
| a) Residuos de jardinería que se entregue por los ciudadanos. | a) Landarezaintzako lanetan sortutako hondakinak. |
| b) Los envoltorios, envases, embalajes y otros residuos sólidos producidos en locales comerciales. | b) Saltokietako salgaien azalak, ontziak eta gainerako hondakin solidoak. |
| c) Los materiales residuales producidos por actividades de servicios, comerciales e industriales, de características similares a los desechos domiciliarios. | c) Zerbitzu, merkataritza edo industri jardueretan sortu diren etxeko hondakin antzekoak. |
| d) Los residuos producidos por el consumo de bares, restaurantes y demás establecimientos que expidan alimentos cocinados o en los que se realicen consumiciones de cualquier clase. Asimismo los producidos en supermercados, autoservicios y establecimientos similares. | d) Jaki prestatuak edo edozein motatako kontsumizioak eskaintzen dituzten ostatu, jatetxe eta gainerako establezimenduetan sortzen diren hondakinak. Halaber, supermerkatu, autozerbitzu eta gisako establezimenduetan sortutakoak. |
| e) Los residuos de consumo en general producidos en residencias, hoteles, colegios y otros establecimientos públicos. | e) Egoitza, hotel, ikastetxe eta bertze establezimendu publikoek oro har sortzen dituzten kontsumoko hondakinak. |
| f) Los residuos originados por la actividad de los mercados municipales. | f) Udal azoken jardueretan sortzen direnak. |
| B) Otros residuos sólidos que en ningún caso se incluirán en la recogida de residuos domiciliarios y por lo tanto queda prohibido su vertido en los contenedores de uso público: | B) Etxeko zaborren bilketan inoiz ere jasoko ez diren bertzelako hondakinak eta, horrenbertzez, debeku da erabilera publikoko edukiontzietan uztea: |
| 1. Industriales: Tendrán la consideración de residuos industriales: | 1. Industrialak: Hona hemen zein joko diren industrialtzat: |
| a) Los materiales de desecho, cenizas y escorias producidas en fábricas, talleres, almacenes y grandes comercios, así como los producidos en instalaciones de tratamiento de residuos. | a) Lantegi, tailer, biltegi eta denda handietan sortutako hondar, errauts eta zepak; eta hondakinak tratatzeko instalazioetan sortuak. |
| b) Los neumáticos. | b) Neumatikoak. |
| c) Los procedentes de explotaciones agrícolas o ganaderas. | c) Abeltzaintzako eta nekazaritzako ustiatagietan sortuak. |
| d) En general, aquellos residuos urbanos que por las condiciones de su | d) Oro har, itxura, bolumena, pisua, egunero ateratzen den kantitatea, |

presentación, volumen, peso, cantidad de libramiento diario, contenido de humedad y otras, resulte que, a juicio de los servicios de la Mancomunidad, no puedan ser objeto de la recogida de residuos domiciliarios, entendiéndose como tal un volumen de libramiento medio diario superior a los 50 litros.

2. Residuos clínicos.

3. Animales domésticos muertos.

4. Tierras y escombros.

5. Muebles, enseres domésticos, trastos viejos.

6. Vehículos abandonados.

7. Residuos calificados de peligrosos producidos por los ciudadanos en sus viviendas.

Artículo 10. A efectos de la presente Ordenanza, tendrá la consideración de recogida de residuos domiciliarios la de los residuos urbanos definidos en el artículo 9.A), de recepción obligatoria.

Artículo 11. La prestación del servicio de recogida de residuos domiciliarios comprenderá las siguientes operaciones:

a) Traslado de las basuras desde los puntos de depósito hasta los vehículos de recogida.

b) Vaciado de las basuras en los dichos vehículos.

c) Devolución de los contenedores, una vez vaciados, a su punto de ubicación habitual.

d) Limpieza de las basuras vertidas en la vía pública a consecuencia de estas operaciones.

e) Transporte y descarga de las basuras en

hezetasuna eta bertzelakoak kontutan hartuta, Mankomunitatearen zerbitzuen iritziz etxeko hondakinen bilketan jaso ezin diren hondakinak. Horrelakotzat joko dira egunero ateratzen den kantitate hori 50 litrokoa baino handiagoa bada.

2. Hondakin klinikoak.

3. Etxeko animalia hilak.

4. Lurrak eta obra-hondakinak.

5. Altzariak, etxeko tresnak, traste zaharrak.

6. Ibilgailu abandonatuak.

7. Herritarrek etxeetan sortutako hondakin arriskutsuak.

10. artikulua. Honako ordenantza honi dagokionez, etxeko hondakinen bilketaren barrenean sartuko dira 9.A) artikuluan zehazten diren nahitaez bildu beharreko hiri hondakinak.

11. artikulua. Etxeko zaborren bilketako zerbitzuan lan hauek egingen dira:

a) Uzteko gunetatik zaborrak hartu eta ibilgailuetara eramatea.

b) Zaborrak ibilgailu horietan hustea.

c) Edukiontziak, hustu ondoren, zeuden lekuan uztea.

d) Lan hauek direla medio bide publikoan botatuko zaborrak biltzea.

e) Zaborrak garraiatu eta

los Centros de Tratamiento habilitados al efecto por la Mancomunidad. Mankomunitateak ezarritako tratamendu zentroan deskargatzea.

f) Lavado de los contenedores.

f) Edukiontziak garbitzea.

CAPITULO II

II. KAPITULUA

Modalidad de prestación del servicio de recogida de residuos domiciliarios. Etxeko zaborren bilketa egiteko moduak.

Artículo 12. La Mancomunidad establecerá la recogida de residuos domiciliarios, mediante contenedores, con la frecuencia que considere más idónea. 12. artikulua. Mankomunitateak etxeko zaborren bilketa edukiontzien bidez ezarriko du, egokien jotzen duen maiztasunarekin.

La Mancomunidad podrá introducir, en todo momento, las modificaciones al programa de servicios de recogida que, por motivos de interés público, tenga por convenientes. Mankomunitateak, interes publikoaren ikuspegitik komenigarritzat jotzen duenean, edozein unetan, iruditzen zaizkion gorabehera guztiak alda ditzake bilketa zerbitzuen programan.

Artículo 13.

13. artikulua.

1. Los usuarios estarán obligados a utilizar debidamente los contenedores que a tal fin sean instalados por la Mancomunidad. 1. Erabiltzaileak beharturik daude Mankomunitateak paratzen dituen edukiontziak zuzen erabiltzera.

2. Los contenedores deberán cumplir las normas técnicas que establezca la Mancomunidad. 2. Edukiontzien bete beharko dituzte Mankomunitateak ezartzen dituen baldintza teknikoak.

3. El tipo de contenedores, el número de unidades a emplear en una agrupación de viviendas, local comercial, industrial o establecimiento y su ubicación, será fijada por los servicios de la Mancomunidad. 3. Mankomunitateko zerbitzuek finkatuko dute zein motatako edukiontzi, zenbat eta non jarriko diren etxebizitza multzo batean, eta merkataritzako edo industriako lokal edo establezimenduetan.

4. Tratándose de elementos contenedores de propiedad pública, los servicios de la Mancomunidad procederán a su renovación cuando estén estropeados, pudiendo imputar el cargo al usuario cuando hayan quedado inutilizados por su uso indebido. 4. Edukiontziak jabetza publikokoak izanen direnez, Mankomunitateko zerbitzuek aldatuko dituzte, hondaturik daudenean. Aldaketa erabiltzailearen kontura izan daiteke, baldin eta gaizki erabiltzeagatik hondatu badira.

5. La Mancomunidad se reserva el derecho a modificar la ubicación de los contenedores por motivos de interés público, bien de forma definitiva, o de 5. Mankomunitateak edukiontzien kokalekua alda dezake baldin eta interes publikorako komenigarritzat jotzen bada, betiko edo aldi baterako. Aldi baterako

forma transitoria. En este último caso, una vez desaparecida la causa que motivó el traslado, se ubicarán en los lugares de origen.

6. Los servicios de la Mancomunidad realizarán la limpieza periódica de los contenedores de su propiedad, pudiendo igualmente y a costa de los propietarios de los mismos efectuar la limpieza de contenedores particulares.

7. La Mancomunidad podrá solicitar el establecimiento de vados y reservas especiales del espacio urbano para la carga, descarga y demás operaciones necesarias para la correcta conservación de contenedores de basura.

Asimismo cuando se trate de actividades con gran producción de residuos, pescaderías, supermercados, industrias alimentarias, etc,... y superen los 200 metros cuadrados de superficie construida deberán disponer de un habitáculo suficientemente ventilado para proceder al depósito de basuras en los contenedores, que sacarán al exterior en los lugares y horarios determinados por esta Ordenanza.

8. Queda terminantemente prohibido el estacionamiento de vehículos delante de los contenedores.

Los ayuntamientos miembros de la Mancomunidad, en sus ordenanzas municipales, especificarán la prohibición de estacionar vehículos delante de los contenedores o de una manera tal que impida su recogida y vaciado, utilizando la señalización horizontal adecuada si lo creen oportuno y recayendo en ellos la potestad sancionadora como una infracción más de tráfico.

9. Los ayuntamientos, a través de sus propios servicios, mantendrán limpios de forma adecuada los puntos de ubicación de contenedores y su entorno.

izan denean, lehen zeuden tokira itzuliko dira lekuz aldatzeko arrazoia desagertzean.

6. Mankomunitateko zerbitzuek hainbertze egunetik behin garbituko dituzte beren jabetzako edukiontziak; partikularrak direnak ere garbi ditzakete, betiere jabeen kontura.

7. Mankomunitateak pasabideak paratzeko eta hiri espazioaren erreserba bereziak egiteko eska dezake, zamalanetarako eta edukiontziak behar bezala mantentzeko.

Era berean, hondakin anitz sortzen duten jarduerak –arraindegiak, supermerkatuak, elikagaien industriak, eta abar-, azalera eraikia 200 metro karratutik goitikoak badute, leku itxi bat beharko dute izan, baina behar adina aireztaturik, zaborrak edukiontzietan hor uzteko, eta edukiontziak kanpora atera beharko dituzte ordenantza honek zehazten dituen leku eta orduetan.

8. Arrunt debekaturik dago edukiontzien parean ibilgailuak aparkatzea.

Mankomunitateko kide diren udalek beren udal ordenantzetan aipatuko dute debekaturik dagoela ibilgailuak edukiontzien parean aparkatzea edo zaborrak hartu eta husteko lanak eragozteko moduan aparkatzea; horretarako, lurreko seinaleak erabil ditzakete, egoki juzgatzen badute, eta haien esku izanen da zigortzeko ahalmena, trafikoko bertze arau-hauste bat balitz bezala.

9. Udalek, beren zerbitzuen bitartez, garbi mantenduko dituzte edukiontzien kokapenak eta inguruak.

Artículo 14. El usuario, además de las obligaciones establecidas en el artículo anterior, tendrá las siguientes:

1. Utilizar los contenedores de basuras que determine la Mancomunidad, de conformidad con la normativa vigente. Estos contenedores serán de propiedad de la Mancomunidad.

2. Los usuarios están obligados a depositar las basuras dentro de los mismos, según las normas establecidas, prohibiéndose el abandono de los residuos fuera de los contenedores

3. Los contenedores de residuos serán tratados y manipulados tanto por los usuarios como por el personal de recogida con cuidado de no causarles daño.

4. Los ciudadanos cuidarán de no impedir las operaciones correspondientes de carga, descarga y traslado.

5. Se prohíbe la descarga de basura a granel en los contenedores. El usuario deberá introducir sus residuos en bolsas herméticas perfectamente cerradas para evitar la suciedad.

6. No se permitirá al usuario mover los contenedores de su ubicación en la vía pública bajo ningún pretexto.

7. No se podrán arrojar a los contenedores, residuos con contenido líquido.

8. La Mancomunidad podrá obligar a aquellos comercios o industrias, ubicados en los cascos urbanos y que habitualmente utilicen contenedores sitos en las vías públicas de los municipios, los cuales produzcan residuos molestos para los vecinos debido a su olor o composición (pescaderías por ejemplo), a utilizar exclusivamente para el vertido, al menos para el tipo de residuos mencionados, determinados contenedores, ubicados en

14. artikulua. Erabiltzaileak, aurreko artikuluan ezarritako betebeharez gainera, bertze hauek ere izanen ditu:

1. Mankomunitateak zehazten dituen edukiontziak erabiltzea, indarra duen arauteriari jarraikiz. Aipatu edukiontziak Mankomunitatearenak izanen dira.

2. Erabiltzaileak zaborra edukiontzietan sartzera beharturik daude, ezarritako araei jarraikiz. Debekaturik dago edukiontzietatik kanpo zaborrik uztea.

3. Erabiltzaile nahiz zabor biltzaileek arreta handiz erabiliko dituzte zaborrontziak, kalterik jasan ez dezaten.

4. Herritarrek ez dituzte zamalanak eta eramate lanak eragotziko.

5. Debekaturik dago zaborra sueltoan botatzea edukiontzietara. Erabiltzaileak ongi itxitako poltsa hermetikoetan sartu beharko ditu bere hondakinak, zikindu ez dezaten.

6. Erabiltzaileak ezin izanen ditu edukiontziak bide publikoan dauden tokitik inola ere mugitu.

7. Ezin izanen da edukiontzietara bota eduki likidoa duen hondakinik.

8. Hiriguneetan kokaturiko saltokiek edo industriek udalerrietako bide publikoetan dauden edukiontziak erabili ohi badituzte eta horiek bizilagunendako gogaikarriak diren hondakinak sortzen badituzte usaina edo gaiak direla eta (adibidez arraindegietan), Mankomunitateak behartzen ahalko ditu herrigunetatik kanpo kokaturiko halako edukiontzi batzuk erabiltzera, aipatu hondakin motetarako, bederen, han ez baitira gogaikarri

las afueras de los cascos urbanos, donde estas molestias no se produzcan, los cuales serán debidamente indicados. El incumplimiento de esta obligación, la cual se comunicará por escrito en caso de que se produzca, dará lugar a las correspondiente sanción.

9. Los productos inertes deben depositarse en sus correspondientes contenedores de recogida selectiva conforme se especifica en el Capítulo III.

Tienen la consideración de inertes los residuos que no sean susceptibles de descomposición rápida, tales como vidrio, papeles, cartones, plásticos, embalajes, bricks y metales.

10. La Mancomunidad sancionará a quienes con su conducta causen impedimento a la retirada o reposición de los contenedores.

CAPITULO III

De la recogida selectiva de basuras

SECCION 1

Consideraciones generales

Artículo 15. Tanto la Ley 10/1998 de Residuos, como la Ley 11/1997, de Envases y Residuos de Envases, establecen los objetivos de reutilización, reciclado y otras formas de valorización de los residuos, con la finalidad de proteger el medio ambiente y la salud de las personas.

Artículo 16. A los efectos del artículo anterior la Mancomunidad dispone de un sistema de recogidas selectivas, que conlleva la obligación de los usuarios de presentar por separado o en recipientes especiales aquellos residuos susceptibles de distintos aprovechamientos, o cuya recogida específica se considere conveniente.

gertatuko. Seinaleak paratuko dira edukiontzi horiek non dauden adierazteko. Betehar hori bete ezean, erantzuleari idatziz jakinaraziko zaio eta behar den zehapena ezarriko.

9. Produktu geldoak utzi behar dira bilketa sailkatu horretarako dauden edukiontzietan, III. Kapituluaren zehazten den bezala.

Geldotzat hartuko dira usteltze azkarra izaten ez duten hondakinak, hala nola beira, papera, kartoia, plastikoa, enbalajeak, brikak eta metalak.

10. Mankomunitateak zehapena jarriko die edukiontziak kentzea edo paratzea eragozten dutenei, hauen jokabidea dela medio.

III. KAPITULUA

Zaborren bilketa sailkatua

1. ATALA

Orokortasunak

15. artikulua. Bai Hondakinei buruzko 10/1998 Legeak, bai Ontziei eta Ontzien Hondakinei buruzko 11/1997 Legeak betebeharreko helburu batzuk finkatu dituzte, hondakinen berrerabilpen, birziklapen, eta bertze balioztapen erako arloan, hori guztia ingurumena eta jendearen osasuna babesteko asmoz.

16. artikulua. Aitzineko artikuluan ezarritakoari dagokionez, Mankomunitateak bilketa sailkatuaren sistema baduenez, erabiltzaileak sailkatu behar ditu edo edukiontzi berezietan utzi halako hondakinak, aprobetxamendu desberdina dutenak edo aparte biltzea merezi dutenak.

En ningún caso se arrojarán a los contenedores de recogidas selectivas otros residuos que no sean los señalados específicamente para cada una de ellas.

Artículo 17. Igualmente la Mancomunidad podrá establecer recogidas de diferentes productos puerta a puerta, señalando la periodicidad, horario y características de la recogida, tales como papel, voluminosos, etc, ...

Artículo 18. Las empresas o industrias que produzcan residuos reciclables en un volumen superior al que establece el punto 1-d del apartado B del artículo 9, deberán llevar estos separados y por sus propios medios a instalaciones de reciclaje o dar de alta contenedores de uso exclusivo tal y como establece el artículo 28, siempre que la Mancomunidad considere asumible dicho servicio.

SECCION 2

De la recogida selectiva de vidrio

Artículo 19. La Mancomunidad tiene habilitados contenedores específicos para la recogida selectiva de vidrio.

En dichos contenedores se verterá solamente cualquier tipo de envase de vidrio, sin distinción de color, sin el tapón y vacío de cualquier líquido o producto.

SECCION 3

De la recogida selectiva de papel y cartón

Artículo 20. La Mancomunidad tiene habilitados contenedores específicos para la recogida selectiva de papel y cartón.

En dichos contenedores se verterá solamente cualquier tipo de papel y cartón que no contenga otro tipo de productos como pueden ser ceras, plásticos o

Sailkako bilketako edukiontzi bakoitzean botako dira horretarako bereziki zehaztuta dauden hondakinak, inola ere ez bertzelakorik.

17. artikulua. Era berean, Mankomunitateak zenbait gairen atez ateko bilketak egin ditzake, eguna, ordua eta zer bilduko den -papera, traste handiak, etab.- zehaztuta.

18. artikulua. Birziklatzen ahal diren hondakinak, 9. artikuluko B ataleko 1-d puntuan zehazten den bolumena baino handiagokoak, sortzen dituzten enpresek edo industriek berezita eraman beharko dituzte birtziklatzeko instalazioetara, edo euren erabilerarako ez besterako edukiontzien eskaera egin, 28. Artikuluan ezartzen den gisan, betiere Mankomunitateak bere gain hartzeko modurik ikusten badu.

2. ATALA

Beiraren bilketa sailkatua

19. artikulua. Mankomunitateak beira biltzeko edukiontzi bereziak jarrita ditu.

Edukiontzi horietara, beirazko ontzi mota bertzerik ez da botako, berdín da zein kolore duen, taparik gabe eta edozein likido edo produkturik gabe.

3. ATALA

Sailkako bilketa: papera eta kartoia

20. artikulua. Mankomunitateak papera eta kartoia biltzeko edukiontzi bereziak jarrita ditu.

Edukiontzi horietara edozein motatako papera edo kartoia bertzerik ez da botako, baina bertzelako produkturik -ezkoak, plastikoak edo aluminioa- ez duena; beraz,

aluminio; así pues, los envases de brick tampoco podrán ser depositados.

Las cajas de cartón deberán ser depositadas convenientemente plegadas o troceadas para evitar que ocupen un volumen excesivo dentro del contenedor, quedando prohibido su depósito fuera del contenedor.

Los comercios y empresas que generen gran cantidad de cartón podrán solicitar a la Mancomunidad la prestación del servicio de recogida puerta a puerta. La Mancomunidad decidirá si este servicio es asumible, examinado el informe de sus servicios técnicos.

SECCION 4

De la recogida selectiva de envases ligeros.

Artículo 21 La Mancomunidad tiene habilitados contenedores específicos para la recogida de envases ligeros.

En dichos contenedores se verterá solamente cualquier tipo de envase que no sea de papel, cartón, o de vidrio, es decir, envases de plástico, latas metálicas y bricks, u otros tipos que pudieran ser designados en un futuro.

SECCION 5

Artículo 22. De la recogida selectiva de pilas.

La Mancomunidad tiene habilitados contenedores específicos para la recogida selectiva de pilas, distribuidos por distintos puntos.

CAPITULO IV

Recogidas especiales de residuos urbanos.

Artículo 23. Se considera recogidas especiales de residuos urbanos, las de los residuos definidos en el artículo 9B). La

brik ontziak ere ezin dira bota.

Kartoizko kaxak behar bezala tolesturik edo zatikaturik bota beharko dira, edukiontzia barnean behar baino leku gehiago har ez dezaten. Debekaturik dago edukiontzietatik kanpo uztea.

Kartoi kopuru handiak sortzen dituzten denda eta enpresek eskatzen ahal diote Mankomunitateari atez ateko bilketa zerbitzua emateko. Mankomunitateak erabakiko du zerbitzu hau ematen ahal den, bere zerbitzu teknikoen iritzia ikusita.

4. ATALA

Sailkako bilketa: ontzi arinak

21 artikulua. Mankomunitateak ontzi arinak biltzeko edukiontzi bereziak jarrita ditu.

Edukiontzi horietan, paperezkoak, kartoizkoak edo beirazkoak ez diren ontziak bakarrik sartuko dira, hau da, plastikozko ontziak, metalezko latak eta brick ontziak, edo, noizbait hala erabakitzen bada, bertzelakoak.

5. ATALA

22. artikulua. Sailkako bilketa: pilak.

Mankomunitateak pilak biltzeko edukiontzi bereziak paratuak ditu, toki desberdinetan banaturik.

IV. KAPITULUA

Hiri hondakinen bilketa bereziak.

23. artikulua. 9.B) artikuluan definitu diren hiri hondakinen bilketak berezitzat hartzen dira. Mankomunitateak zerbitzu

Mancomunidad podrá establecer dichos servicios o determinará la forma de llevarse a cabo por los usuarios.

Artículo 24. De acuerdo con lo que establece la Ley 10/1998, de 21 de abril, cuando la Mancomunidad considere que es peligroso determinado tipo de residuos, podrá exigir de su productor o poseedor que, con anterioridad a la recogida, realice el tratamiento necesario para eliminar la característica que le confiere la naturaleza de peligroso, o para transformarlo en un material que pueda ser recogido, transportado, tratado o eliminado sin peligro para las personas, las cosas o el medio ambiente.

Artículo 25. Tendrán la consideración de residuos peligrosos todos los materiales residuales que figuran en la lista de residuos peligrosos, aprobada en el Real Decreto 952/1997, así como los recipientes y envases que los hayan contenido, los calificados como peligrosos por la normativa comunitaria y los que en el futuro apruebe el Gobierno según dispone la Ley 10/1998 de Residuos.

Artículo 26. A los efectos de garantizar lo recogido en el artículo anterior, los productores, poseedores y terceros autorizados que produzcan, manipulen o transporten los residuos especificados en los artículos anteriores están obligados a facilitar a la Mancomunidad cuanta información les sea requerida sobre el origen, naturaleza, composición, características, cantidad, forma de evacuación, sistema de pretratamiento y de tratamiento definitivo de los residuos de que se trate.

SECCION 1

De la recogida, transporte y vertido de residuos industriales o comerciales

Artículo 27. Cualquier industria o comercio que esté ubicado dentro del

horiek ezarri alhalko ditu edo, bertzenaz, erabiltzaileek nola egin behar duten erranen du.

24. artikulua. Apirilaren 21eko 10/1998 Legeak ezarritakoaren arabera, Mankomunitateak hondakin motaren bat arriskutsua dela uste duenean, hura sortzen duenari edo haren jabe denari eska diezaioke, biltzeari ekin baino lehen, beharrezkoa den tratamendua egin dezan, hondakina arriskutsu bihurtzen duena kentzeko, edo pertsona, gauza edo ingurumenerako arriskutsu izan gabe bildu, garraiatu, tratatu edo deuseztatzeko moduan uzteko eralda dezan.

25. artikulua Ordenantza honetatik kanpo geldituko dira, hondakin arriskutsutzat hartzen baitira, honako arauotan onetsita agertzen diren hondakin guztiak: 952/1997 Errege Dekretuan, baita haiek bildu dituzten ontzi eta enbase guztiak, Europako Arauegietan arriskutsutzat hartzen diren haiek eta hemendik aitzina Gobernuak aipatuko dituenak, Hondakinei buruzko 10/1998 Legearen arabera.

26. artikulua Aurreko artikulua dioena bermatu ahal izateko, aurreko artikuluetan zehaztutako hondakinak sortu, eskuztatu edo garraiatzen dituztenak eta baimendutako hirugarrenak beharturik daude hondakinen jatorriari, izaerari, osaketari, ezaugarriei, kopuruari, ebakuazio motari, aurretratamendu sistemari eta behin betiko tratamenduari buruzko informazioa ematera Mankomunitateari.

1. ATALA

Industrietako eta saltokietako hondakinak bildu, garraiatu eta botatzea

27. artikulua. Edozein industriak edo saltokik, Mankomunitateko lurralde

ámbito territorial de la Mancomunidad, o aunque no lo esté produzca residuos dentro del mismo, puede verter sus residuos en el vertedero de la Mancomunidad, transportándolos por sus propios medios y siempre que estos sean asimilables a urbanos, previa solicitud del permiso de vertido correspondiente.

En caso de que existan dudas sobre la composición de los residuos a verter se podrá exigir un análisis efectuado por algún laboratorio oficial y remitir el mismo al Departamento de Medio Ambiente del Gobierno de Navarra para la aceptación o no de los residuos.

El personal encargado del tratamiento de residuos en el vertedero deberá inspeccionar en todo momento los residuos objeto de vertido por las industrias o comercios.

La Mancomunidad podrá obligar al interesado a efectuar el vertido por sus medios o a dar de alta contenedores exclusivos en las condiciones y casos que se establecen en el artículo 28.

